

(+34) 943 424119
San Martin, 36 - 3.B
20005 DONOSTIA

Farmaberti

FARMAZILARI EUSKALDUNEN ELKARTEA



Eibarren

*H*omeopatiak bizi garen gizartean gero eta interes handiago sorrarazten duen terapeutika da. Handituz doaz norbera bere kontsultan egunero aritzen diren medikuak, tratamendu homeopatikokoak eskatzen dituzten erabiltzaileak eta eskaera horri jaramon egiten dioten farmazialariak.

Metodo terapeutiko honen ezaugarriak dira medikamendu hauek dosi infinitesimaletan hartzen direla, baita tratamendua banan-banakoa dela eta, gainera, toxizitate-gabezia erabatekoa dela. Medikamendu homeopatikoen desegokiespen zein ondorio kaltegarrien gabeziagatik paziente guztiak har ditzakete, jaioberriek, haurdunek eta adinekoek barne.

Homeopatiaren jarduera-esparrua oso zabala da eta terapeutika horretaz baliatzen diren profesionalek jakin behar dituzte bere ahalbideak eta mugak. Gainera, Farmazia-ikasketa planetan homeopatia ez da sartzen irakasgaien artean.

Aurten, Farmazilari Euskaldunen Elkartearen VII. Batzar Orokorra eta urteroko jai eguna, datorren apirilaren 14an, igandea, Eibarren ospatuko dugu. Batzarra egin ondoren Alfredo Elorza lankide jatorrak "Mostradoreko homeopatia" izenburua duen hitzaldi interesgarria eskainiko digu. Alfredo zestoarra da. Farmazia-ikaske-

dugu hitzordua

tak Iruñean burutu (lehen promoziokoa da) eta Eibarren farmazia bat ireki zuen. Egun, bertan segitzen du lanean. Oso ezaguna da. Sendabelarren gainean hitz eginez Euskal Telebistako "aire-aire" programan esku hartu zuen eta "Osabi-deak" programan ere bai. Azken honetan ere osasunari buruz mintzatu. Homeopatiatz baliatzen da farmazian zenbait gaitz tratatzeko eta erakutsiko digu bere eraginkortasuna kasu praktiko batzuk azalduz. Gure lankidea 1988an homeopatian diplomatu zen eta farmazialari aitzindarietako bat bada Euskal Herrian terapeutika hau erabiltzen.

Beraz, badakizu, datorren apirilaren 14an Eibarren duzu hitzordua. Oso ongi pasatuko duzu. Ez huts egin. Zure zain izanen gara.





Altuerako edo mendigoizaleen gaitza

Mendiko gaitza edo ondoeza, 2.500 metrotik gora igoz gero agertzen den sindrome bat da. 2.500 metrotan pertsonen %25etan agertuko litzateke sindrome hau, eta zenbat eta gorago orduan eta portzentaia handiagoak jasango luke sindrome hau. Sindromearen larritasuna eta altuera ere zuzenki proportzionalak dira.

Zergatik gertatzen da?

Altuera igotzen den heinean, atmosferako presioa eta arterietako oxigenoaren presio partziala jeitsi egiten dira, ondorioz, ehunetan oxigenoa (O_2) falta izaten da, hau sindromearen arrazoi nagusia delarik.


Oxigenoaren presio partzialaren jeitsierari erantzuteko, gorputzak hiperairreztapena suspertzen du, eta ondorioz CO_2 ren presio partziala jeisten da, ura galtzen da, eta arnas alkalosia sortzen da. Azken honek 24-48 ordu irauten du, gertuaren bidez bikarbonatoa kanporatu arte.

Oxigenoaren presio partzialaren jeitsiera eta odol bolumenaren jeitsiera (ura galtzen delako) dela eta katekolaminen kontzentrazioa igo egiten da, eta hauek dira honen ondorioak: Tentsio arteriala, bihotz maiztasuna, biriketako arteria-presioa eta garuneko odol fluxua igo egiten dira.

Bestalde O_2 ren garraioa hobetzeko gorputzak 2 ordutan odolean eritropoietina maila igotzen du, eta 4 ordutan globulu gorrien maila.

Sintomatologia

Lehen mailakoa mendiko ondoez akutua (MMA) da, eta honakoak dira ageri diren sintomak: Buruko mina, ezina, ahultasuna, liseri aparatuko gora be-



Altuerako ondoezak eraso ez dezan, onena altuera piskanaka irabaztea da

herak. Atsedenean arnasestua izanez gero MMA larriagoa dela esango genuke, eta altuerak eragindako biriketako edemaz (EPA), bigarren mailakoaz, hitzegingo genuke. EPA 2.500 metrotik gora %15engan agertzen da, sexu, edade eta altuera aldaketa zenbat denboran egin denaren arabera. EPA-ren sintomak gauean gogorrago agertzen dira, eta larritasun kliniko bat osatzen dute: eztula, atsedenean arnasestua, ezina, bularreko mina edo kongestioa eta takikardia.

MMA-k eta EPA-k jarraitzearen ondorioz, altuerako garun edema (ECA), hirugarren mailakoa, agertuko litzateke. Sintomak ataxia, kontzientzi mailako aldaketak eta ahulezia larria dira.

Garrantzitsua da kasu hauetan pertsona ongi hidratatzea, eta aktibo mantentzea (egonean tronboembolismo arriskua handiagoa baita). Sintomak larriagotuz gero ahalik eta azkarren jeitsi behar litzateke pertsona hori alturatik.

Nola saihestu eta tratatu

Altuerako ondoezak eraso ez dezan, onena altuera piskanaka irabaztea da, erdi pareko altuera batetan egokitze denbora bat hartuaz. Komeni da baita

ere hasieratik ur asko edatea, eta karbohidrato ugari hartzea. Gantzak, sodioa, alkohola, tabakoa eta botika lasaigarriak berriz ahal den gehien murriztea komeni da.

Bi botika dira altuerako ondoeza eragozteko eta tratatzeko eraginkorrak:

- Acetazolamida: anhidrasa karbonikoaren inhibitzaile handia da. Bi bidetik eragiten du, batetik, diuretikoa denez, likidoak kanpora arazten ditu, edemak eragotziz, eta bestetik bikarbonatoa kanporatzen laguntzen du, alkalosia jeitsiz.

Egunean 0'5 gramotik 1/gr-rako dosia gomendatzen da, bi edo hiru alditan banatuz, igoera hasi baino egun bat edo bi lehenago hasiaz, eta gehien-go altuerara iritsi ondoren beste egun pare batetan jarraituz.

Aurkako eraginak: Parestesia, botalarria, anorexia, logurea etab.

- Dexametasona (4 mgr. / 6-8 ordu). Alde okerrean aurkako eraginak dira: liseri aparatuko ondoezak, eta tratamendua amaitu ondoren depresioa ager daiteke.



Entzuteko arazoak dituzten hezkuntza bereziko haurrak

Miren Fuldain, farmazialari lekeitiarra duela bederatzirte iritsi zen Getarira. Bere lanetik at, ELAN-EUSKADI Gobernuz Kanpoko Erakundearen sorreran parte hartu zuen eta gaurregun bolondres da Bidezko Merkataritzaren arloko arduradun funtzioetan. GKE honek Urola-Kostan egiten du bere lanik garrantzitsuen eta egoitza Getarian du (Herrerrieta, 6-4.A, 20808 Getaria. 943140441/943140695 tel.)

Miren, zein izan zen ELAN-EUSKADI GKE sortzearen arrazoiak?

Herri mailan bageunden pertsona talde bat denok GKE ezberdinetan sartuta batzuk bazkide eta beste batzuk bolondres moduan. Konturatu ginen bailaran merezi zuela esfortzu bat egitea, garapen proiektuak hemendik bultzatzeko, eta aldi berean, sentsibilizazio kanpainak egiteko. Azkenean, 96an lortu genuen erakunde berri hau sortzea.

ELAN-EUSKADIK zenbat bazkide ditu eta zeintzuk da bere finantziarioa?

Gutxigorabehera gure taldean 100 bazkide gara, gehienok Urola-Kostako nahiz eta Donostia, Errenteri eta beste hainbat tokiko kideak ere egon. Finantziario iturriak beste taldeetan bezala bi dira, batetik bazkideen kuotak

Garapena bultzatzen Urola-Kostan

eta bestetik Euskal Herriko Udaletxe ezberdinetatik jasotako dirulaguntzak. **Zer proiektu lantzen ditu ELAN-EUSKADI taldeak eta zein herrialdetan gauzatzen dira?**

ELAN-EUSKADIK garrantzi handia ematen dio hezkuntzari. Garapeneko talde den heinean, helburua da guk bultzatutako proiektuak bitarteko instrumento bat izatea gero eurek lor dezaten ongizatea bere kabuz. Guk bultzatu ditugun proiektu ezberdinen artean, indigenei formazio bekak ematea izan da, edota eskola edo ogitegi baten eraikuntza, etab. Bestalde, urtero urtero kontainer handi bat bidaltzen dugu Kubara, erropa, liburu, ordenagailu, jostailu eta beste hainbat gauzekin.

ELAN-EUSKADIK hiru herrialdetan garatzen dira; Kuba, Nikaragua eta Venezuelan. Saiatzen gara urtero taldeko kideren bat lurralde hoietara joaten ikusteko ea nola ari diren garatzen proiektuak eta aldi berean proiektu berriak ekartzeko. **ELAN-EUSKADI sortu zenetik zeintzuk dira zure ustez emandako arrerapausu garrantzitsuenak?**

Ni oso pozik nago orain arte egin du-

gun lanarekin. Adibidez, 2000. urtea oso garrantzitsua iruditzen zait taldearentzat, izan ere, urte horretan lortu genuen egoitza zabaltzea Getarian eta baita ere Euskadiko Garapeneko Gobernuz Kanpoko Erakundearen Koordinadoran sartu ginen.

Garapeneko proiektuez gain sentsibilizazio lanik egiten al duzue Urola-Kostan?

Guretzat ezinbestekoa da gizartea sentsibilizatzea. Kubara bidaltzen dugun kontainerra betetzeko bailarako eskolatan hitzaldiak eman eta ikasleei laguntza eskatzen diegu. Bestalde, urtero urtaril amaieran jardunaldiak antolatzen ditugu Hirugarren Mundua gai nagusi hartuta, aurtengoa 9.en edizioa izango da, eta udaran Hegoari Begira izeneko erakusketa egiten dugu. Bidezko Merkataritza ere bultzatzen dugu. ELAN-EUSKADIK ireki zuen egoitzan, EMAUS taldeak ekarritako produktuak dauzkagu salgai, eta pixkanaka ari gara jendea konbentzitzen kafea, tea, kakaoa eta beste zenbait elikagai eros daitezkeela prezio onean, eta horrela, produktu horiek erosiz Hirugarren Munduko biztanleak laguntzen ditugula.



Jardunaldiak

Farmazia, XXI. Mendeko erronken aurrean

200 bat farmazilari batu ginen Bilbon Euskalduna jauregian urtarrilaren 25 eta 26an egin ziren Euskal Herriko farmazia bulegoaren lehenengo jardunaldi profesionalen inguruan.

Jardunaldi hauetan farmazia bulegoek hartu behar luketen jarrera geroak baino orainak dakarrenari aurre egiteko azteztu zan.


Profesionalizazioa zan gehien apostua. Zainketa Farmazeutikoa zentzu orokorrean eta beronekin loturik gure artean jadanik ezaguna dan Medikamentuekin Erlazionaturiko Arazoen antzematea eta berriagoa dan Norbanako Dosifikazio Sistemaren aurkezpena.

Izan genduan baita ere ekonomilariaren ikuspuntua, eta honek oroitarazi zizkigun farmaziak enpresa bezala dauzkan arazo ekonomiko larri eta bazter ezinak.

Administratziotik Osasun Identifikaziorako Txartela eta errezeta elektronikoa zer diran eta etortzeaz daudela azaldu ziguten.

Azkenez eta guzti honi aurre emateko behar beharrezkoa izango genduke gure farmazia bulegoen modernizazioa, teknologia barriei atxikimendua eta baita ere eskeintzen ditugun zerbitzuen kalitatea bermatzeko eman behar ditugun pausuak.

Eusko Jaurlaritzako osasun sailburuak, Gabriel M^a Inclánek eman zion hasiera ekitaldiari eta Gonzalo Trincado, osasun saileko farmazia zuzendariaren eskutik etorri zan amaiera ekitaldia.



Hitzegindakoa:

"Jardunaldi hauetan farmazia bulegoek hartu behar luketen jarrera geroak baino orainak dakarrenari aurre egiteko aztertu zan"

"Profesionalizazioa zan gehien apostua"

"Ekonomilariak oroitarazi zigun farmaziak enpresa moduan dauzkan arazo ekonomiko larri eta bazter ezinak"

Batzar Orokorra

Aurten Eibarren

Aurtengo Batzar Orokorra eta urteroko jai eguna datorren apirilaren 14an, igandea, Eibarren ospatuko dugu. Zazpigarrena izango da.

Egitaraua eta gainerako zehaztasunak hurrengo egunetan jasoko dituzu. Hala ere, Batzarra egin ondoren Alfredo Elorza lankide jatorrak homeopatiar hitz egingo digula aurreratzen dizugu. Ikusten duzenez FARMABERRI honen lehen orrialdea gai honi eskaini diogu.

Gasteizen, apirilaren 20an

XII. Osasun Jardunaldiak

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak (OEE) XII. Osasun Jardunaldiak Gasteizen egingo ditu, apirilaren 19 eta 20an, Europa Biltzar Etxean.

Jardunaldi hauek osasun arloan lan egiten duten profesional euskaldun guztientzat daude zabalik. Helburua, osasuneko gai bat jorratuz euskararen erabilera zabaldu eta indartzea da. Aurten aukeraturiko gaia GAIKO TERMINALA, ZAINKETAARINGARRIAK da. Gaur egungo gaia izateaz gainera jende askok parte hartzeko aukera ematen da.

Harremanetarako bi lankide hauek dituzu: Ramon Arrizabalaga ☎ 945 007188 (arrizabalaga@htxa.osakidetza.net) eta Felipe Aizpuru ☎ 945 007335 (faizpuru@htxa.osakidetza.net). SEGIMENDU FARMAKOTERAPEUTIKO OADADER PROGRAMAREN ARABERA. EMAITZEN 2. SINPOSIOA.

Dagoeneko farmazialari anitz ari gara egiten segimendu farmakoterapeutikoa Dader programaren arabera. Ekainaren 6, 7 eta 8an, bada, Iruñean jardunaldi zientifiko bat egingo da Zainketa Farmazeutikoaz ditugun ezaupideak elkar trukatzeko.

Antolatzaileek eskatzen digute hautatzea kasu praktiko interesgarrienak sinposiora bidaltzeko. Helburua guztion esperientziez baliatzea guztiok ikasteko.

www.simpodader2.org orrian dagoen eredu erabili behar da kasua aurkezteko eta Interbenzio Farmazeutikoaren orriarekin batera igorri helbide honetara:

C.O.F. Navarra.
Navas de Tolosa, 19 - 3.
31002 Iruña
Cimna@redfarma.org

Lantegietan aztertuko diren kasuak Batzorde Zientifikoak hauta ditzan lanak maiatzaren 1a baino lehen igorri behar dira.